

Euskal AEko ondasunen esportazioak % 13,4 jaitsi ziren 2020ko uztailan

2020ko lehen zazpi hilabeteetan, esportazioek % 21,6ko atzerapena metatu dute aurreko urtearekin alderatuta

Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 13,4ko beheradaka izan zuten urte arteko tasa nominalean, EUSTATEk emaniko datuen arabera. Zenbateko hori 1.857,2 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.143,5 milioien aldean. Ondasun *energetikoen* esportazioak % 54,3 jaitsi ziren, eta *ez-energetikoenak* % 10,1.

Hiru lurraldeek dute joera hori: Bizkaian nabarmenagoa da, % 18,8ko atzerakada izan baitu; ondoren, Gipuzkoan (-% 13,7) eta Araban (-% 7,0).

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2020 Uztaila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Uztaila			Uztaila		
	2019	2020	Δ %	2019	2020	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	2.143.463	1.857.204	-13,4	1.606.914	1.339.218	-16,7
PRODUKTU ENERGETIKOAK	157.665	72.108	-54,3	416.154	253.209	-39,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.985.798	1.785.096	-10,1	1.190.759	1.086.009	-8,8
URTEKO METATUA	15.198.358	11.918.587	-21,6	12.033.981	9.173.488	-23,8
PRODUKTU ENERGETIKOAK	1.158.020	644.423	-44,4	3.115.242	1.830.277	-41,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	14.040.338	11.274.165	-19,7	8.918.739	7.343.211	-17,7
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	714.077	663.956	-7,0	329.054	328.589	-0,1
URTEKO METATUA	4.443.689	3.567.501	-19,7	2.504.735	2.024.390	-19,2
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	787.222	639.224	-18,8	958.272	737.397	-23,0
URTEKO METATUA	5.686.695	4.532.057	-20,3	6.953.831	5.119.770	-26,4
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	642.164	554.024	-13,7	319.588	273.232	-14,5
URTEKO METATUA	5.067.975	3.819.029	-24,6	2.575.415	2.029.327	-21,2


Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskal AEko **ondasunen inportazioak**, 1.339,2 milioi eurokoak, % 16,7 jaitsi ziren 2019ko uztailaren aldean. Inportazio *energetikoenak* % 39,2 jaitsi ziren (-% 12,2 inportatutako tonak kontuan hartuz gero) eta *ez-energetikoenak* % 8,8. Lurraldeka, jaitsierarik handiena Bizkaian izan da (% 23,0), gero Gipuzkoan (-% 14,5) eta, azkenik, Araban (-% 0,1).

Merkataritza-saldoa positiboa izan zen, 518,0 milioi euro ingurukoa. Kopuru horrek esan nahi du merkataritza-superabita % 3,5 jaitsi dela, aurreko urteko aldi beraren aldean (536,5 milioi). Merkataritza-saldo "ez-energetikoa" soilik aztertuz gero, ikusten da saldo hori ere positiboa izan dela eta 699,1 milioira iritsi dela; horrek esan nahi du, aurreko urtekoarekin alderatuta (795,0 milioi), % 12,1eko jaitsiera izan dela.

Esportazioek inportazioen aldean duten **estaldura-tasa** ehuneko 5,3 puntu igo da, % 133,4tik % 138,7ra. Produktu "ez-energetikoen" tasa bera % 166,8tik % 164,4ra iragan da.

Hilabete honetan, hamar herrialdek –Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Italia, Portugal, Erresuma Batua, Belgika, Polonia, Txina eta Mexiko– esportazioen % 68,6 biltzen dituzte. Gehienak EB-27koak dira. Erakunde horrek, 1.148,0 milioirekin, Euskal AEko ondasunen salmenten % 61,8 biltzen ditu.



ESPORTAZIOEN SEKTOREKAKO AZTERKETA (2020KO UZTAILA)

Jarduera-adarrak (A86) aztertuz gero, ikusten da esportazioek suspertzeko joera dutela aurreko hilabeteekin alderatuta; hala, horietako 14tan –guztira 48 izanik– nolabaiteko hazkunde sendoak erregistratu dira. 10 garrantzitsuenetatik hiruk baino ez dute gora egin aurreko urteko hil beraren aldean. Horien artean nabarmentzekoa da "Material eta ekipa elektrikoa", % 24,8rekin (2020ko uztailean 89,3 milioi); beste biak dira "Erabilera orokorreko makineria" (% 1,7 eta 230,6 milioi) eta "Gai metalikoak" (% 1,1, 131,4 milioi). Gainerako kasuetan ehuneko negatiboak daude; muturretan, "Kautxuzko produktuen" -% 1,2 eta "Kokeriak eta petrolio finntzea" delakoaren -% 54,3.

Aipaturiko kategorien beherakadaz gain, nabarmentzen dira, esportazioen atzerakadaren garrantziagatik, "Garraioko beste materiala" (-% 49,0 eta 56,5 milioi esportatuak) eta "Makina-erremintak" (-% 22,9 eta 55,6 milioi).

2020ko uztailean, 25 muga-zergen partida nagusietatik 13k gora egin dute, eta 12k, berriz, behera, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2020ko uztaila

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	2.143.463	1.857.204	100	-13,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	259.978	218.029	11,7	-16,1
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	163.989	178.726	9,6	9,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	174.314	104.671	5,6	-40,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	75.426	74.638	4,0	-1,0
Petrolioaren olio finduak	138.442	54.294	2,9	-60,8
Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	38.544	44.060	2,4	14,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	33.776	35.673	1,9	5,6
Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako	17.756	35.599	1,9	100,5
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	22.730	27.174	1,5	19,6
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	17.982	23.276	1,3	29,4
Transmisio-ardatzak, kojinetekak, engranajeak, enbrageak...	21.278	22.969	1,2	7,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	27.835	21.512	1,2	-22,7
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	32.087	19.928	1,1	-37,9
Burdina edo altzairuzko gainerako enbrageak	18.053	18.070	1,0	0,1
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	11.527	17.574	0,9	52,5
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	21.028	17.339	0,9	-17,5
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketatara euskarriak	14.276	17.134	0,9	20,0
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	6.100	16.411	0,9	169,0
Metal arruntzeko giltzarriak, sarriak, morroilo eta giltzak	15.885	16.201	0,9	2,0
Bero bidez materialak tratatzeko aparatuek	8.494	15.695	0,8	84,8
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	18.475	15.458	0,8	-16,3
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	17.715	15.420	0,8	-13,0
Ardoa, mahats freskoarena	17.961	15.121	0,8	-15,8
Ontziak eta paketatze aparatuek garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	15.233	15.023	0,8	-1,4
Makina erremintetarako parteak eta osagarriak	17.717	13.914	0,7	-21,5

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Aldi horretan Euskal AEko esportazioak izan dituen bi partida garrantzitsuenak izan dira "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" eta "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak". Lehenengoak, 218,0 milioi euroekin, hilaren guztizkoaren % 11,7 hartu du, urte arteko % 16,1eko jaitsiera izan ondoren; bigarrenak % 9,0ko igoera izan du, eta, kasu horretan, esportatutako 178,7 milioiek guztizko kopuru horren % 9,6 hartzen dute.

"Ibilgailu automobilaren zati eta osagarriak" hirugarren posizioan daude esportazioen rankingean, % 40,0ko atzerakada izan badute ere aurreko urteko hil beraren aldean, 104,7 milioi euroko salmenta-kopuruarekin.

Hurrengo partida, "Kautxuzko pneumatiko berriak", % 1,0 jaitsi da bakarrik, eta "Petrolioaren olio finduak" % 60,8 jaitsi dira. Seigarren tokian daude "Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako", % 14,3 igo direnak. Joera positibo horri eutsi zaio harik eta rankingeko hamaikagarren posizioa iritsi arte. Nabarmenezkoak dira "Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako" (% 100,5), "Altzairu herdoilgaitzezko barrak eta profilak" (% 29,4) eta "Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak, gidaria barne" (% 19,6).

Sailkapen horren barruan eta zentzu positiboan honako hauen hazkunde garrantzitsuak ere aipa daitezke: "Findu gabeko kobre; fintze elektrolitikorako kobrezko anodoak" (% 169,0), "Materialak bero bidez tratatzeko aparatuek" (% 84,8) eta "Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)" (% 52,5).

ARABA. 2020ko uztaileko esportazioak

Arabako Lurraldetik egindako esportazioak % 7,0 egin du behera. Hamar partida nagusietatik (guztizkoaren % 76,3) lauk hazkunde-tasa positiboak izan dituzte, eta duen garrantziagatik

nabarmentzen da "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" izenekoa, automobilaren sektorearekin lotutakoa (% 9,2). Hala ere, sektore bereko beste partida batzuek ez diote joera berari eutsi, hala nola "10 pertsona baino gutxiagoko turismoek" (-% 16,5) eta "Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak" (-% 15,9).

Arabako lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Uztaila 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	714.077	663.956	100	-7,0
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	257.783	215.208	32,4	-16,5
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	163.547	178.596	26,9	9,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	28.706	32.523	4,9	13,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	24.118	21.421	3,2	-11,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	16.660	14.003	2,1	-15,9
Ardoa, mahats freskoarena	16.406	13.910	2,1	-15,2
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	11.630	10.314	1,6	-11,3
Aireontzien parteak	10.855	7.374	1,1	-32,1
Segurtasun-beira epela edo kontratxapatua	5.008	7.068	1,1	41,1
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	4.663	6.469	1,0	38,7

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

BIZKAIA. 2020ko uztaileko esportazioak

Bizkaian esportazioek % 18,8 egin dute behera. Gertakari horri egindako ekarpenik handiena, beste hilabete batez ere, "Petrolioaren olio finduak" partidan biltzen da (-% 61,0 eta 84,2 milioiko jaitsiera); norabide berean ere daude "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (-% 62,1 eta 63,0 milioi gutxiago), "0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak" (-% 46,4 eta 12,7 milioiko atzerakada) eta "Kautxuzko pneumatiko berriak" (-% 10,9), besteak beste. Nabarmentzekoa da honako hauen portaera ona: "Esku-erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako", % 119,9ko hazkundearekin (2019ko uztailean baino 18,8 milioi gehiago); "Petrolio-olioen edo mineral bituminosoen kokea, betuna eta gainerako hondakinak" (% 475,5 eta 11,0 milioi gehiago); eta "Findu gabeko kobrea; fintze elektrolitikorako kobrezko anodoak" (% 169,0 eta 10,3 milioiko hazkundea).

Bizkaiko lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Uztaila 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	787.222	639.224	100	-18,8
Petrolioaren olio finduak	138.122	53.906	8,4	-61,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	46.452	41.367	6,5	-10,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	101.447	38.431	6,0	-62,1
Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako	15.662	34.446	5,4	119,9
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	14.954	21.175	3,3	41,6
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	6.100	16.411	2,6	169,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak	27.265	14.615	2,3	-46,4
Kokea, betuna eta petrolio-olioen edo mineral bituminosoen gainerako hondakinak	2.312	13.306	2,1	475,5
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	8.881	12.771	2,0	43,8
Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	12.792	12.610	2,0	-1,4

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

GIPUZKOA. 2020ko uztaileko esportazioak

Gipuzkoan ere okerrera egin dute esportazioek hilabeteen, gainerako lurraldeetan bezala (-% 13,7), baina bere hamar partida esportatzaile nagusien artean bostek atzera egin dute eta beste

hainbestek gora, aurreko urteko hil beraren aldean. Lehenengoan artean, honako hauen jaitsierak nabarmentzen dira: *"Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako"* (-% 82,9 eta 48,2 milioi gutxiago), *"Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak"* (-% 20,0 eta 3,1 milioi gutxiago), *"Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak"* (-% 25,5 eta -6,5 milioi) eta *"Makina-erremintarako zatiak eta osagarriak"* (-% 26,4 eta -3,6 milioi). Bigarrenen artean, honako hauek nabarmentzen dira: *"Hariak, elektrizitate-eroale diren kable isolatuak eta zuntz optikozko kableak"* (% 344,5 eta 9,0 milioi gehiago) eta *"Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako"* (% 24,4 eta 6,0 milioi urte arteko hazkundera).

Gipuzkoko lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Uztaila 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	642.164	554.024	100	-13,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	56.207	52.237	9,4	-7,1
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	24.637	30.660	5,5	24,4
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	21.886	27.164	4,9	24,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	25.504	18.989	3,4	-25,5
Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	14.983	15.511	2,8	3,5
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	12.001	12.977	2,3	8,1
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	15.755	12.610	2,3	-20,0
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	2.604	11.574	2,1	344,5
Makina erremintarako parteak eta osagarriak	13.600	10.011	1,8	-26,4
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako	58.206	9.959	1,8	-82,9

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

URTEKO METATUA (2020KO LEHENENGO ZAZPI HILABETEAK): kanpoko merkataritza-saldoak 2.745 milioi euroko superabita du, eta estaldura-tasa % 129,9tan dago

2020ko lehenengo zazpi hilabeteetan, eta Euskal AEko **esportazioetan**, % 21,6ko jaitsiera izan da aurreko urteko aldi beraren aldean; hau da, 3.279,8 milioi euro gutxiago. Aldi horretan esportazioen zenbatekoa 11.918,6 milioiokoa izan da, eta Bizkaiak egin du ekarpenik handiena: 4.532,1 milioi (guztizkoaren % 38,0). Ondoren, Gipuzkoak (3.819,0 milioi) eta Arabak (3.567,5 milioi).

Bizkaiko esportazioak dira Euskal AEko garrantzitsuenak, urte arteko % 20,3ko jaitsiera izan arren (2019an baino 1.154,6 milioi gutxiago). Araban % 19,7 jaitsi dira (876,2 milioi gutxiago), eta Gipuzkoan % 24,6 (1.248,9 milioi gutxiago).

Esportatutako produktu-motari dagokionez, "Produktu ez-energetikoak" dira beherakada handiena izan dutenak, 2.766,2 milioi gutxiagorekin; hala ere, "energetikoak" ere jaitsi dira (513,6 milioi).

2020ko lehen zazpi hilabeteetan gehien saldutako hamar produktuak (muga-zergen partidak) 4.803,9 milioi eurokoak dira, guztizkoaren % 40,3. Guztiek egin dute atzera 2019ko aldi berarekin alderatuta. Jaitsiera horien erdiak 100 milioi eurotik gorakoak izan dira, eta horietatik hiru nabarmentzekoak dira, 350 milioi euro inguruko jaitsierekin. Zehazki, automobilgintzarekin zerikusia duten produktuak dira; izan ere, *"Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako"* izenekoak % 57,4 egin du behera (-354,1 milioi euro), *"10 pertsona baino gutxiagoko turismoek"* % 23,6 egin dute behera (-339,6 milioi), *"Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilen"* % 19,2 egin dute behera (-179,2 milioi) eta *"Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak"* % 32,3 (-347 milioi).

2020ko hilabete hauetako esportazio-rankingaren arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 17,6 hartzen baitu. Alemaniaren atzetik, Frantzia (% 15,5), Estatu Batuak (% 7,1) eta Erresuma Batua (% 6,0) daude; horrela, lau herrialdeen artean esportazioen % 46,3 biltzen dira.

Inportazioen metatua, Euskal AE osorako, 9.173,5 milioi eurokoa izan da aipaturiko aldian. Kopuru hori urte artean konparatuta, ikusten da ezen 2.860,5 milioi gutxiagokoa izan dela 2019ko aldi berekoaren aldean. % 23,8ko jaitsiera hori, hein handi batean, gertatu da Bizkaiko lurraldean (5.119,8 milioi euroko inportazioekin) aldi horretan % 26,4ko jaitsiera izan delako, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 1.834,1 milioi gutxiago. Gipuzkoako inportazioek ere behera egin dute (-% 21,2 eta 546,1 milioi gutxiago), nola Arabakoek ere (-% 19,2 eta 480,3 milioi gutxiago). Inportatutakoaren balioa 2.029,3 eta 2.024,4 milioi eurokoa izan da bi lurralde horietan, hurrenez hurren. "Produktu energetikoen" inportazioa % 41,2 jaitsi da, eta "Produktu ez-energetikoen" % 17,7.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2020ko lehenengo zazpi hilabeteetan, 2.745,1 milioi euroko saldo positiboa izan du. Aurreko urteko aldi berean baino 419,3 milioi gutxiagokoa izan bada ere, % 129,9ko aldeko estaldura-tasa bati eustea ahalbidetu du.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62